



Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

{NT2000022819340000000}

NT200002281934000000001

TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
ALDANONDO ALBISU YON
SAN BLAS AUZOA
20400 TOLOSA
GIPUZKOA

IBARRAKO UDALA

JAKINARAZPENA

Nik, Eider Esnaola Carrerak, Ibarra Udaleko Idazkaria naizenak, honakoa

JAKINARAZTEN DUT

Alkateak, 2023ko maiatzaren 4an, Dekretu hau eman du, 271/2023 zk. Dekretua, hitzez hitz horrela dioena

28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabidea da. Telebista, irratia eta webgunea dira kanalaren euskarriak. Eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira. Bailarako edukiak dira Kanalaren programazioaren ardatz nagusia, baina horretaz gain, elkarlanean ari dira gainerako euskarazko telebistekin. 28 kanala, Tokikom, Euskal Herriko Toki Hedabideen elkarteko partaide ere bada.

%100 emititzen du euskaraz. 4 orduko emisio bloke bat du baina etengabe emisioan dagoena, etengabe berritzen dena, hau da, emititzen ari den bitartean, aldatu daiteke eta egunean zehar aldaketa ugari izaten ditu parrilak. Esan daiteke "Euronews" antzeko formula erabiltzen dutela baina saioak txertatuta. Euskarazko 20 orduko emisiora iristen dira. Beraien produkzioaz gain, Tokikom sareko saioak ere emititzen dituzte. Bailarako beste hedabideekin saioak egiten ari dira eta Tokikom barruko telebistekin batera eskaintza bateratuak eta saio bateratuak ere egiten ari dira.

Beraien jardunean (beraien erreportaje eta saioak egiteko garaian) informazioaren oreka mantentzen saiatzen dira, horretarako iritziak kontrajarriz eta iritzi emaileari berea agertzeko aukera emanaz.

Saioak egiteko garaian, adin guztietako ikus-entzuleei iristeko asmotan egiten dituzte, bertan gazteak bereziki presente dituzten ohiko moduez gain eta teknologia berrienak erabiliz, egiten dute beren jarduna. Euskararen etorkizuneko oinarri izango direla ikusita, ahalegin berezia egiten dute beraientzako intereskoak diren edukiak lantzen. Edukiak euskaraz egiteagatik baino edukiak euskaraz kalitate profesionalekin egiteagatik publikoa erakarri nahi dute. Eduki erakargarriak egiteko beharra dute eta etengabe ari dira ekintzak aplikatzen.

Genero berdintasuna ere bermatuta daukate, sexu desberdintasunagatik ez dute inoiz inor beren telebistatik baztertu.

ESKUCfa91133-f2c8-423b-bee6-acfe9376cc9f

Gazteak ere protagonistak dira 28 Kanalaren programazioan. Forma aldetik, gazteak azkartasuna eta eduki freskoak hartzeko ohituta daude eta 28 Kanaleko programazioan aise ikusi daiteke bi faktore garrantzitsu dituen edukiak: laburra, telebistaz ikustiaz gain beste edozein aplikazioetan ikus dezaken edukiak behar dira eta muntaia azkar eta dinamikoak hobesten dituzte. Bigarrena, berriz, egunerokoan oinarritutako gaiak bereganatzen saiatzen dira, kontsumitzaile finenak eta exijenteenak direla kontuan hartuta, beraientzako zuzendutako, ikastaro, kirol, kultur ekitaldi eta abarrek lehentasuna dute 28 kanalekoentzat. Hori bakarrik ez, kolaboratzaile handienak ere gazteak dira eta beraiekin kolaborazio eta lan harreman handia mantentzen saiatzen dira 28 Kanalekoak.

Haurrentzako saioak, pailazoak, magia, txotxongiloak, musika taldeei elkarriketak garrantzia dute 28 kanaleko programazioan.

2023ko martxoaren 15ean, Ion Aldanondo Albisuak, 28 kanaleko zuzendariak, 816 erregistro zenbakia duen eskaera aurkeztu zuen Ibarra udalean. Eskaera hartan, entitatearen aurrekontua 2023 urterako eta Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin egunean daudela justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu zituzten.

Ikusita, aurkeztutako informazioa ez zela nahikoa dirulaguntza ebaluatu ahal izateko informazio hori osatzeko eskatu zitzaion Ion Aldanondo jaunari.

2023ko maiatzaren 2an, Ion Aldanondok urteko memoria eta Ibarrari eskainitako eskaintzaren honako informazioa aurkeztu zuen udal erregistroan.

28 kanalak honakoa eskainiko dio Ibarrari:

- 28 kanalak Ibarrari 2023 urtean euskarazko 79 erreportaje/saio eskainiko dizkio.
- Saioak emititu ahala, www.28kanala.eus web orrian zintzilikatuko ditu.
- Web orria herrika sailkatu eta ondoko lotura honetan ikusi ahal izango dira Ibarra udalaren herriari dagozkion guztiak: <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/67-herriak/ibarra>
- Telebista eta webaz gain, 28 kanalak, irratia eta sare sozialak badienez, kanal horiek ere erabiliko ditu Ibarra udalaren berri berri emateko

Kontuan hartuta, balorazio ekonomikoari dagokionez, Ibarra udalak 2023an entitatearen aurrekontu osoaren %2 diruz lagunduko duela eta ordainetan 28 kanalak bere produkzioaren %3,7a eskainiko diola.

Alkatetza honek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21.1 artikularen, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Beteginaren art.24 artikularen eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jardunbide eta Araubide Juridikoaren 41 artikularen arabera esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU

LEHENA.- Ematea dirulaguntza izendun zuzen bat Tolosako Komunikabideak SL honako arrazoiengatik:

- Ibarra berriak ibarra telebista zabaltzen duen komunikabide bakarra delako.
- Bere formatuak (Euronews modukoa) uneen-uneen gertatutakoa denbora errealean ibarritarrena iristeko aukera ematen duen komunikabide bakarra delako Ibarra.
- Gertuko berriak euskaraz emititzen dituen eta ibarritar gehienetara iristen den telebista kate bakarra delako.
- Ibarritari buruzko ikus-entzunezko saioak eta erreportajeak egiten dituelako.
- Euskaraz normalizatzeko bidean lagundu egiten duelako eskaintzen dituen jarduerak eta zerbitzuak. Euskararentzat eta euskararen normalizaziorako garrantzitsua da herriko berriak jasotzen dituen gertuko ikus-entzunezko komunikabide bat izatea

BIGARRENA.- Ematea 8.200 euroko dirulaguntza Tolosako Komunikabideak SL ri.

HIRUGARRENA.- Egozteak aipatu kopurua 2023ko 1 10.335.00.481.09 2022 partida izendunari

LAUGARRENA.- Aipatu dirulaguntza honako hitzarmen bidez gauzatzea:

IBARRAKO UDALAREN ETA TOLOSAKO KOMUNIKABIDEA SL-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ibarra udalarekin, 2023ko maiatzaren XXn.

ELKARTURIK

Alde batetik, Igor Zapirain Lizarribar jauna, Ibarra Udaleko Alkate-Lehendakaria, Ibarra Udaleko Idazkari Eider Esnaola Carrerak lagunduta.

Eta bestetik, Jon Aldanondo Albisu jauna, 34108860K NAN zenbakiduna, Tolosako komunikabideak SL enpresako zuzendaria. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako San Esteban, 20 duena, B20915468.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarra Udalaren izenean eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen

dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Tolosako Komunikabideak SL-ren izenean eta ordezkartzan, zuzendari gisa, 2012ko abenduaren hamalauko data duen notarioaren aurrean emandako ahalmenaren arabera

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Tolosako Komunikabideak SL enpresak 28 kanala telebista kanala ekoizten duen enpresa da. 28 Kanala Tolosaldeko euskarazko komunikabidea da. Telebista, irratia eta webgunea dira kanalaren euskarriak. Eduki guztiak euskara hutsean eskaintzen dira. Bailerako edukiak dira Kanalaren programazioaren ardatz nagusia, baina horretaz gain, elkarlanean ari dira gainerako euskarazko telebistekin. 28 kanala, Tokikom, Euskal Herriko Toki Hedabideen elkarteko partaide ere bada.

%100 emititzen du euskaraz. 4 orduko emisio bloke bat du baina etengabe emisioan dagoena, etengabe berritzen dena, hau da, emititzen ari den bitartean, aldatu daiteke eta egunean zehar aldaketa ugari izaten ditu parrilak.

Beraien produkzioaz gain, Tokikom sareko saioak ere emititzen dituzte. Bailerako beste hedabideekin saioak egiten ari dira eta Tokikom barruko telebistekin batera eskaintza bateratuak eta saio bateratuak ere egiten ari dira.

Beraien jardunean (beraien erreportaje eta saioak egiteko garaian) informazioaren oreka mantentzen saiatzen dira, horretarako iritziak kontrajarritik eta iritzi emaileari berea agertzeko aukera emanez.

Saioak egiteko garaian, adin guztietako ikus-entzuleei iristeko asmotan egiten dituzte, bertan gazteak bereziki presente dituzten ohiko moduez gain eta teknologia berrienak erabiliz, egiten dute beren jarduna. Euskararen etorkizuneko oinarri izango direla ikusita, ahalegin berezia egiten dute beraientzako intereskoak diren edukiak lantzen. Edukiak euskaraz egiteagatik baino edukiak euskaraz kalitate profesionalekin profesionalarekin egiteagatik publikoa erakarri nahi dute. Eduki erakargarriak egiteko beharra dute eta etengabe ari dira ekintzak aplikatzen.

Genero berdintasuna ere bermatuta daukate, sexu desberdintasunagatik ez dute inoiz inor beren telebistatik baztertu.

II.- Tolosako Komunikabideak SL entitateak 2022ko martxoaren 22an Udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez —sarrera erregistroko zenbakia 801.—, diru-laguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarra Udalen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek 15.540 euroko aurrekontua du, diru-laguntza eskaeraren helburu diren

ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

- Ibarrari eskainitako 65 erreportaje/saio emititzea.
- Saio horiek www.28kanala.eus web orrian zintzilikatzea emititu ahala.
- Web orria herri sailkatzea, eta Ibarrari dagozkionak gune berezitu batean egotea: <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/67-herriak/ibarra>
- 28 kanalak dituen irratia eta sare sozialak erabiltzea Ibarra berrien berri emateko

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helburuekin.

V.- Ibarra Udaren 2023ko udal aurrekontuan, 1 10.335.00.481.09 2022 partida agertzen dela, 8.200 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardura-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau Udaren berezko eskumenen artean dago eta Tolosa Komunikabideak SL-k Ibarra herrian Euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu helburu nagusi gisa eta Ibarra herria eskualde mailako euskalgintza proiektuan barneratuko du herritarren parte-hartzea eta genero berdintasunaren alde lan eginez komunikazio hedabide bezala.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. Artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen dit; horien artean 17.20 artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua

onartzen duena; eta Ibarra Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

VIII.- Dirulaguntza izendun hau, Ibarra udalak 2020ko otsailaren 18an ez ohiko udalbatzan onartutako Ibarra Udaleko Dirulaguntza Plan Estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO, 38 zb), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozedurarik egingo dirulaguntza emateko.

IX.- 298/2019 Alkate Dekretuari jarriki, dirulaguntzaren hitzarmena sinatzeko eta dirulaguntza emateko organo eskuduna Alkatea izango da

X.- Hori dela eta, 2023ko maiatzaren 4ko data duen 271/2023 Alkate Dekretu bidez Tolosa Komunikabideak SLri 8.200 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena onartu eta sinatzea erabaki zen.

XI.- Aipatu dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL elkarrearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerriaren barruan.

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Ibarrari eskainitako 65 erreportaje/saio emititzea.
- Saio horiek www.28kanala.eus web orrian zintzilikatzea emititu ahala.
- Web orria herri sailkatzea, eta Ibarrari dagozkionak gune berezitu batean egotea: <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/67-herriak/ibarra>
- 28 kanalak dituen irratia eta sare sozialak erabiltzea Ibarra berrien berri emateko

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarra Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2023ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **8.200 eurokoak** izango dira, 1 10.335.00.481.09 2023 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarrekin beste Erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarra udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakenar.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-intereseekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarra udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera III. Kapitulua.

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra Udalaren

Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udalaren III. kapituluan dirulaguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. Eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta.

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.



Espedientea:	00000009
Sarrera-erregistroa:	000801 / 22/03/2022
Titularra:	TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria:	ALDANONDO ALBISU YON
Gaia:	28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehena organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren %70a izango da, eta gainontzeko %30a, egindako gastua justifikatzen duen kontua onartutakoan. Justifikazioa aurkezteko azken eguna, 2023ko urtarrilaren 31a izango da.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.-Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo elebitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.

- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.

Hamalagarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jardura gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.



Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarrako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarrako Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemezortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarrako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA

TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL

34108860K YON
ALDANONDO (R:
B20915468)
Firmado digitalmente por 34108860K YON ALDANONDO (R: B20915468) Fecha: 2023.05.12 15:43:44 +02'00'

ESKUCfa91133-f2c8-423b-bee6-acfe9376cc9f

Igor Zapirain Lizarribar

Ion Aldanondo Albisu

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO - Ibarrako udala - Gainontzekoak	€

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra (Adibidea)

Azalpena	kopurua
----------	---------

GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA

Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	

Justifikatutako gastuak zehaztuta (ADIBIDEA)

AGIRI MOTA/ TIPO DOCUMENTO	ZK.	DATA	IGORLEA EDO JASOTZAILEA / EMISOR O RECEPTOR	CIF / DNI	KONTZEPTUA	BEZ-a €	IRPF %	€
GUZTIRA								

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioeko errezihoak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, erreziho eta Tikeketan, horiek burutzen dituenak, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagiriketan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.
5. IFK edo NAN.
6. Kontzeptua: gastuaren objektua
7. BEZ-a: Faktura eta Tikeketan kasuan.
8. PFEZa: Nomina, ordainagiri kasuan eta autonomoen fakturetan.
9. €: Dirulaguntza -eskatzailak ordaindu behar izan duena.
10. Guztira: Kontzeptu guztien batuketak

Aipatutako erakundearen ordezkari legala naizen aldetik, honako hau

Adierazten dut:

Eranskin honetan jasotako datuak egiazkoak direla, bertan jasotako ordainketak eginda daudela, deialdi honetako 13. Artikuluak ezarritako betebeharrak betetzen ditudala eta, nolatan ere, prest nagoela Ibarra Udaren esku jartzeko jasotako dirulaguntza behar bezala erabili dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua :

XXXXXXXXXXXXXX

Izena Abizenak.....XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX.....

Lekua eta data:n, 202 korenan




Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

LEGE-OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorritik, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako dirulaguntzak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratiboa kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Ibarra Udala da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Euskara Sailera jo beharko da, helbide honetara: Euskal San Bartolome, 2, 20400-Ibarra.

2.-ERANSKINA ALTA HIRUGARRENEI

ESKUCfa91133-f2c8-423b-bee6-acfe9376cc9f



Ordainketak bideratzeko datuak

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO	
A	HIRUGARRENA IDENTIFIKATZEKO DATUAK DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO
(1) NAN/IFZ DNI/CIF (2) Izena eta bi abizenak / Societatearen izena Nombre y dos apellidos / Razón Social Helbidea Domicilio Posta kodea Herria Código postal Población Herria/idea País	
B	BANKUAREN DATUAK DATOS BANCARIOS
(1) Bankua Banco (2) Agentzia Agencia (3) KD DC K/korrentea C/Corriente (4) Jabea Titular OHARRA: Kontu korrontearen jabeak deialdion hirugarrena bera behar du izan. NOTA: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo que el tercero interesado.	
C	Bankuaren adierazpena Conforme banco
D	Hirugarrenaren adierazpena Conforme tercero
E	Sail edo Erakundearen onepena VR RP Dpto. u Organismo
Sinadura eta zigilua Sello y firma	
Sinadura eta zigilua Sello y firma	
Sinadura eta zigilua Sello y firma autorizada	
Data / Fecha	

SEIGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari jakinaraztea.



Espedientea: 00000009
Sarrera-erregistroa: 000801 / 22/03/2022
Titularra: TOLOSAKO KOMUNIKABIDEAK SL
Ordezkarria: ALDANONDO ALBISU YON
Gaia: 28 KANALA: 2022ko dirulaguntza

ZAZPIGARRENA.- Akordio honen berri ematea udalbatzari egiten duen lehen bilkuran.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu(e) administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegian BI HILABETeko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 114.1.c) artikulua erekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu(e) ebazpena eman duen organoari HILABETEKO EPEAN, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123 eta 124 artikuluetan eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure/zuen eskubideak babesteko egoki irizten dituzu(e)n egintza edo errekurtsiak aurkezteari kalterik egin gabe.

Ibarra, 2022ko urriaren 7a

Eider Esnaola Carrera

Idazkarria

